

## **EROSKI-K 1.240 TONATIK GORA EMAN DU AURTEN, "EZ ALFERRIK GALDU" PROGRAMARI ESKER**

- **EROSKI**k janaria dohaintzan emateko programa aurkeztu du Europako nekazaritzako elikagaien kateko 300 profesionalen aurrean, janaria alferrik galtzearen aurkako AECOCen IV. Topaketan.
- **EROSKI**k eman dituen janariak produktu freskoak dira, bezeroekiko freskotasun konpromisoa ez betetzeagatik edo ontziak akatsen bat izateagatik apaletatik kenduak
- **Kooperatibak lanean dihardu elikagaiak jasotzen aritzen diren Espainia osoko berrogeita hamar bat erakunde sozialekin**

**Elorrio, 2016ko irailaren 26a.-** [EROSKI](#)k aurtan 1.240 tona janaritik gora eman die horrelako dohaintzez arduratzen diren entitate sozialei, "Ez alferrik galdu" elkartasun programari eskerrak. Gaur jakinarazi du datua EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko zuzendari Alejandro Martinez Berriochoak hitza hartu duenean [Save Food Meeting](#) izenekoan, hots, AECOCek janaria alferrik ez galtzeko egin duen IV. topaketan, zeinetan Europako nekazaritzako elikagaien kateko 300 profesional baino gehiago izan baitira.

*"Ekoizpena, biltegiatzea, eraldaketa, banaketa... Kate osoan galtzen da janaria. EROSKI*kook, katearen parte izanik, erabaki dugu kontsumitzeko moduan den janaririk ez dugula alferrik galtzen utziko", esan du EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko arduradun gorenak. *"Helburu horrek bat egiten du guk dugun asmo argi batekin, arduratsuak izatea gure enpresa kudeaketaren eredu den ingurunearekin".*

### **Elikadura segurtasuna zaintzeko protokoloa**

EROSKI

k baldintzarik onenetan dauden produktuak soilik eskaintzen dizkie bezeroei. Elikagai freskoren batek freskotasuna zertxobait galdu badu edo ontziren bat ez badago behar bezala (kolpetxo bat duelako, adibidez, edo bilgarria apurtu zaiolako), kendu egiten du saltokietatik, eta programa honetan parte hartzen duten erakundeei ematen die. *"EROSKI*k emandako elikagai guztiak beti daude iraungitze edo kontsumitze dataren barnean, eta kontsumitzeko egoera ezin hobean", esan du Martinez Berriochoak.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

EROSKIk protokolo bat landu du emandako elikagaien segurtasuna bermatzeko. *"Elikagai freskoekin, esaterako, zenbait neurri hartzen ditu hotz-katea ez dadin eten ezta hartzailearen esku geratzen direnean ere; izan ere, horrek bermatu behar du baldintzak zorrotz zaindu direla bai garraioan eta bai beren biltegietan"*, azaldu du kooperatibaren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak.

### **Elikagairik alferrik galtzen ez duen lehen banaketa katea**

*"1996an hasi ginen Elikagaien Bankuarekin lanean, Bizkaiko Elikagaien Bankuak proposatuta eta kontsumitzaileek berek eskatuta behartsuen eta bazterkeria soziala jasateko arriskuan direnen kolektiboari elkartasuna erakusteko. Hala, urte horretan bertan hasi zen Kilo Operazioa, elikagaien bilketa kanpaina, EROSKIko dendetan"*, gogorarazi du Martinez Berriochoak.

Gero, EROSKIk martxan jarri zuen kontsumitze data hurbil zuten baina oraindik ziurtasun osoz jateko onak ziren elikagai ontziratuaren donazioaren programa. Gaur egun, programa horrek eta Elikagaien Bankuak jarraitzen dute 'Ez alferrik galdu' konpromisoarekin, jateko on den elikagairik ez botatzeko bere hipermerkatu eta supermerkatu sare guztian. Berriki, krisi ekonomikoaren lehen ondorioak hastearekin, programa janari freskoetara ere hedatu da.

*"Gure konpromisoa sendoa da jatekoa alferrik galtzearen kontra; hala, 2013an, Espainiako lehen banaketa katea izan ginen, bere hipermerkatu eta supermerkatu sare guztian janaririk alferrik galtzen utzi ez zuena"*, kontatu du EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak. Kooperatibak lanean dihardu horretaz arduratzen diren Espainia osoko berrogeita hamar bat erakunde sozialekin.

### **Kontsumitzaileak kontzientziatzearen garrantzia**

Programa horren bidez, asmoa ez da bakarrik janaria alferrik galtzen ez utzi eta elkartasun ekintza bat egitea, kontsumo arduratsua egitea ere bada eta. *"Kontsumitzailea kontzientziatzeko zenbait kanpaina egiten ditugu aldi berean, etxean galtzen diren janariei buruzko gogoeta bultzatzeko eta jatekoarekin izaten den utzikeria nola saihestu erakusteko eta, horrela, janaria alferrik ez galtzeko EROSKIk hartua duen konpromisoarekin bat egiteko"*, esplikatu du Martinez Berriochoak. *"Zure eskura jartzen ditugu zenbait jakintza, baliabide eta tresna praktikoa erosketa egiten duzunean hura arrazionalizatzeko, ahal den gehiena aprobetxatzeko eta ahal den gutxiena alferrik galtzeko; horrela, gizarteak eta familiek dirua aurrezteko lortuko dute"*.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Martinez Berriochoak kontzientziazte lan horren adibide gisa jarri du iaz udaberrian Nafarroan egindako "fruta eta barazki itsusien" promozio kanpaina. *"Bezeroek sasoiko frutak eta barazkiak erosi ahal izan zituzten gure saltokietan, kalitate estandarrekin bat ez eginagatik jateko aski onak zirenak"*, esan du. *"Fruten eta barazkien %20 eta 40 artean bota egiten dira dendetara heldu aurretik. Bezeroek eta banaketa kateek maila estandarrik gorenak eskatzen ditugu zaporean eta kanpoko forma edo itxuran, eta salmentatik kanpo uzten ditugu ezaugarri horietatik ateratzen direnak, nahiz eta jateko berdin-berdin onak izan"*, gaineratu du.

EROSKIren 'Ez alferrik galdu' programa erreferentziazko bihurtu da janaria hondatzen ez uzteko jardunbide arduratsuen arloan, eta zenbait aitorten jaso ditu. Besteren artean, Espainian janarirako eta iraunkortasunerako "jokabide egoki berritzaileen erronkak" izeneko bereizgarria, Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak emana, eta Urrezko Galburua, Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioarena.

Era berean, iaz, Milango Erakustazokan, programa hori aurkeztu zuen Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak, ekimen nabarmen gisa.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)